



Espediente zenbakia: 313/2022

Prozedura: Hitzarmena, Zigoitiko biztanleek Zuiako kirol-instalazioak erroldatutako pertsona gisa erabiltzeko, Bengolarrako instalazioetako obrek irauten duten bitartean.

BANDOA

IGERILEKU ETA GARRAIO ZERBITZUA 2024 DENBORALDIA

Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina eraberritzeko eta handitzeko obran egin behar izan diren aldaketek ez dute posible egiten 2024ko udan udal-igerilekuak jendearentzat irekitzea.

Igerileku publikoen zerbitzu alternatiboa eskaintzeko, Zigoitiko biztanleek Murgiako udal igerilekuak erabili ahal izateko Zuiako Udalarekin sinatu zen hitzarmena luzatu du Udalak.

2024rako Zuiako Udalak bere udal kirol instalazioetarako onartutako prezio publikoak honako hauek dira:

Familia-abonamendua:

- 25 urtetik beherako pertsonena: 70€
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familiek: 35€

Familia-abonamendua familiako kide guztiak barne egongo dira. Familia-kideak izango dira gurasoak eta 25 urte arteko seme-alaba ezkongabeak, diru-sarrerarik ez dutenak.

Banakako abonua:

- 25 urtetik beherako pertsonena: 15€
- 25 urtetik gorako pertsonena: 30€
- 18.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erretiratuena: 15€
- % 65etik gorako minusbaliotasuna duen pertsonena: 15€
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen pertsonena: 15€

Abonu berri bat galtzeagatik: 5€

Nahi dutenek Zigoitiko Udalak eskaintzen duen doako autobusa erabili ahal izango dute. Zerbitzu hori astelehenetik igandera egongo da martxan, 2024ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte; 16:00etan irtingo da Ondategiko Bengolarra kirol-instalazioetatik eta 20:30ean itzuliko da Murgiako Palatuko kirol-instalazioetatik.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA

